



MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2009ko apirilaren 23an egindako batzaraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

“ITURRIOTZ AUZOAN FRONTOI BALIO ANITZA ERAIKITZEKO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BEHIN BETIKOZ ESLEITZEKO PROPOSAMENA

2009ko apirilaren 1ean Udal Osoak, “Iturriotz auzoan frontoi balio anitza eraikitzeke proiektuan sartutako obrak” behin behingo izaeraz Construcciones Alzola S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Construcciones Alzola S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Iturriotz auzoan frontoi balio anitza eraikitzeke proiektuan sartutako obrak” behin-betiko Construcciones Alzola S.A.ri (NIF A-20035671) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 212.545,66 €koa da (BEZ kanpo). BEZa 34.007,31 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 246.552,97 €koa da eta ordainketa Udal Aurrekontuko 1 1102.623.452.00.02 (A 500/09) partidaren kontura egingo da.

Bestalde, egikaritze epea 3 hilabetekoa da eta obran 8 pertsona okupatuko ditu, 4 enpresan integratutakoak eta 4 kontratazio berrikoak.

Halaber, lizitazioan parte hartzeko proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabakia da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Erreti Eraikuntzak S.L.
- Construcciones Alzola S.A.
- Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita hiruan.

